



Hirugarren adinekoak

Arkupeak elkarteko hirugarren adinekoak beti kurri bidaia eginenez. Aurten ibilaldi aunitz egin dire, ilabete behin segurik eta bai ibilaldirik gabe otorduak jubilatuen artean. Aurten ibilak gara: Zintruenigo, Lizarra, Ondarrabi, Doneztebe, Aralar, Arantzazu, Igan-tzi, Elizondo, Iruña, Bera eta gehi-gotan ere. Gero ibilaldi haundia-gokoak ere eginak dire: Benidor, Torremolinos, Kantabria, Kosta Brava eta bertze.

Joan da azaroaren 24-ean ospatu zen Beran ARKUPEKO herri guzien elkartasun billera, hau gure Elkartek antolatutik, Berako Uda-la eta Nafarroako Aurrezki Kutxa-ren laguntzarekin. Eguna ederki joan zen. 12-etan Meza Berako Parrokian. Elizkizun ederra, hor ziren ere Iruñatik etorritako Nafarroako Gobernu Aintzindariak eta Aurrezki Kutxak ere. Meza ondoren eta elizan berean mintzatu ziren: Berako Aikatea, Felipe Ganboa eta Nafarroako Gobernu-ko Lendakaria Alli jauna. Gero ordu batean, Beran eraiki beharra

den Erresidenziaren lehenbiziko harriaren ezartzea egin zen. Hor ziren Aintzindari guziak zeremonia hori ospatzeko. Gero bazkaria Berako «Eztegara» pilota lekuan, 500 lagun bildu ginela. Nafarroako Aintzindariak ere, bazkarian parte harturik. Bazkalondan betiko umore ona eta dibersioa, hirugarren adinekoak dantzan eginahal guzian. Egun eder bat iraganik bozkarioz beterik etxeratu ginen.

Arkupeak elkartea ez dago geldirik eta badauzka proiektu edo egitasmo gehiago ere eta mail haundikoak, garrantzi haundikoak eta interesgarriak, hoietako bat Ipar Amerikara bidaia: San Franzisko, Los Angeles, Las Vegas eta Nueva York. Bidai hau egitekotan egingen litzake Maiatzan eta 17 egun iraunen luke. Beti ere ikusiko dugu bidai haundi hau zertan gelditzen den. Bidai honi buruz billerak egin dira eta ez dakigu oraindik egitasmo hoiek egi bihurtuko ote diren. Zain egon gaitzen eta urrengoan zer edo zer agertuko dugu.

M. Izeta

Berri ona

Egia izango ote da?

«Ikusiko dute guztiek Jaungoikoaren salbamena»
(Lk. 3,1-6)

AURREKO igandean Jainkoa toki eta errealdade jakin batean agertu zela genion. Gaurkoan guztion salbamena, Jaungoikoak eskeñitako salbamena, alegia, ikusiko dutela agintzen zaigu. Emengo mundu onetan posible al da salbamena? Guztiek nai ote dute salbamena? Nor da egungo salbatzailea?

Mundu zabalean eta, gure errian zeazki, pertsona asko dira salbatzaile baten zai daudenak. Egoera gorrian bizi dira anitz eta... guk zer egiten dugu oien alde? Errukia izatea naikoa ote da? Ez ote dute beste zerbaite geiago nai?

Askotako asko dira esperantza edo itxaropena zer den ez dakitenak. Anitz dira gure duintasuna galduta bizi direnak: zapalduak, bortxatuak, kartzelatuak, erbesteratuak, zigortuak... egungo gurutziltzatuak dira. Oiek ere izango al dute salbamena? Nork salbatuko ditu oiek?

Nork salbatuko ditu minutuan iltzen diren 45 umeak? Nork salbatuko ditu 1.800 milioi gizon-emukumeak, jateko ezer ez duten pertsona oiek? Nor izango da langabezia daudenak salbatuko dituen? Zer nolako salbamena espero dute drogaren menpe, sida gaisotasunak jota, era bateko edo beste elbarriak arrapatuta, estalperik ez eta kale gorrian lo egin bear duten ume eta gazteak... nor izango da oien salbatzailea? Oiek ere ikusiko al dute salbamena?

Jainkoak eskeintzen duen salbamena gozatzeko mundu ontako salbamena gozatu bear da. Mundu onetan ezin daiteke bat besteari kontra bizi, ezin daiteke bat bestea baino obeto bizi, ezin daiteke bat besteari kontura aberastu, ezin dezakegu inor zapaldu gu gañean bizi zezake.

Gauzak orrela, munduko nazioek 983.900 milioi dolar (bai ote dakigu peztetan zenbat diru den?) gastatu zituzten igaz armetan. Noiz iritxiko ote da kañoiak eta tankeak traktore eta lan tresna egoki eta aurreratuak bihurtuko diren eguna? Noiz bihurtuko dira guda zelaiak eskola eta ospital egokiak? Eta mundu onetara eta egoera larri onetan aurkitzen den gizartera etorri dadin ari gera otoi eta otoi. Ez ote da gure lana eta gure konpromisoa gizakia egoera orretatik askatzea, obetzea eta sendatzea?

Jainkoaren itza maitasunaren itza da. Jainkoaren naia pakearen eta justiziaren naia da. Jainkoak nai duen mundua elkartasunezko eta berdintasunezko mundua da. Zer egin dugu Jainkoaren itzarekin, naiarekin eta munduarekin?

Abendua gauzatu, egia biurtu bear dugu. Abendua bidea egitea da; egin dezagun lan gure inguru txukuntzen, garbitzen eta dotoretzen. Gure biotza gogortasunean bilduta jarraitzen duen bitartean munduak gaizkiaren izaran korapillatuta jarraituko du.

Artzalluz'tar Joxemari

Patxi Eugi-Iñaxio Errandonea

Atzo, Azaroak 27, jokatu zan Mendizorrotza'n lau t'erdi-barruko leiaketaren azken-partidua. Eugi txapeldun. Jokua asi aurretik ere «milla zortzireuni» oiukatzen zuten artekariek dirua. Ezparririk gabe demalarietzat Patxi Eugi zan ederrikusia. Baita an bildu ziren ikuslerik geienentzat ere. Asko ziren auk. Ez zuten frontoi guztia bete, bañan, alare. pozik izengo lirake enpresak partidu bakoitzean orrenbeste jende bilduko ba'luteke. Esan dezagun, jenderik geiena Nafarroa'tik etorrria zela. Bada noski oraindik Nafarroa'n dirurik aski.

Jokuari dagokionez, ordea, zer esan? Ez dut uste deus askorik esan bear denik: Ezta deus aundirik ere. Mezu-bideek bi, egin dute goratze galantik ugari, ikusi genuen jokuari-buruz. Eugi'ri kementa txertatu naiez ote? Eugi'k, ordea, ez du ontara ezker txerto bearrik, eta ez noakio ni bear ez duen txertorik ematera.

Argi ta garbi emango dizuet nere iritzia: partidua, ez zitzaidan gustatu. Federaziokoa naiz, eta pelota-munduko jende-sortatxo bat ezagutzen dut, eta, «Nafarroa'ko Egunkaria»ren euskal-orri-ontan idaz- lan-lan au argitaratzeko asmoa nuela aurre-esanez, «zer iduritu zaizu partidua» galde tu nien, banaka, frontoi-jende batzuei. Bostetik batek bakarrik erantzun zidan «jederral!», besteek, «kaxkarrak», «¡ba!», eta, bik, ago batez, «¡txarra!»

Erantzun zidatenaren arrazoirik ez nien eskatu. Neri txarra zergatik iruditu zitzaizen esango dizuet: Partidu ori izen bear zuen bezalako izen ez zelako. Asko ta gogor eman zitzaion pelotari. Eskuz-eskuzkoa eta lau t'erdiaren barrukoa izeteko aski luzea izen zen jokua, 53 minutukoa (20 minutukoa, pelota jokuan egon zen denbora bakarrik kontuan artu nai ba'dugu), izen ziren tanto politik, tximista bezain arin joan ziren Eugi-oren aire-ezkerreko batzuk (ez



asko), Errandonea'ren bi ormazko bi, arras politik biak... bañan izan zan uts galantik ere.

Baña okerrera, nere ustez, ez genuela egiazko partidurik ikusi. Eta ori, ez Patxi'ren erruz, Iñaxio'ren erruz baizik. Pelotaka ari zirala, nagusi izen zen Patxi kaskataka bikaiñak emanez. Baña ederki jaso zizkion Iñaxio'k. Onen gaitza, erretoan egon zen. Arritzeko gauza. Izango dire Iñaxio'k beño geiago jotzen duten atzelariak. Baña gure sake-jasotzallerik onena bera da. Altagutiz, atzo 7 sake utzi zituen jaso gabe. Sake aiek beño askoz zallagoak beti jaso izen oi ditu Iñaxio'k. Eta askoz atzeagotik gañera: 10'garren kuadroik! Errebotean negoa ni, ezkerreko ormararen ondoan, eta ogi dakit zer esan dutan. Iñaxio'ri atzo zer gertatu ote zitzaion? Ez dakit.

Baña 7 sake jaso gabe: berak bi motz atera zituen biak, eta pelotaka ari zela 5'era bota zuen pelotabat, 10. Partiduaren erdia, doan, erregaloz, emana! Sake aiek jaso

ba'litu ere Eugi'k irabaziko zuala, Baleike. Baña ori ikusteko dago. Eta guk beintzet, beste erako partidu bat ikusiko genuen.

Altagutiz, nere zorionak bie; Eugi'ri batez ere. Eta beste gauza bat ere esan nai nioke Patxi Eugi'ri. Egiten dituen keñu arlote oiek, eta batez ere, gora begira egiten ditun ezpañ-mobimentu oiek izugarri gauza zakarrak direla. Asi da jendea biraoa, blasfemia, agoan ikusten zaiola esaten, eta baita, entzun ere entzuten zaiola. Poztuko nitzeke asko gañera, berak «Nafarroa'ko Egunkaria» ontan, ez dela biraoka ibiltzen erantzungo ba'lit. Erderaz edo euskeraz bai bait du bere itzak euskaratuko dizkion adiskiderik aski, erderaz eta euskeraz, askoz obeki, bere jokaera zakar orren aurka zurrumurru asko ari bait da sortzen. A! Enpresek ere izugarritzko erantzukizun edo responsabilitatea dute, beren pelotarien jokarea makur oiei-buruz.

Latiegi'tar Bixente


Aita Erroman Bera'tar euskaltzalea

Aita Erroman kaputxinoa Bera'n jaio zen 1878'garren urtean, Alzugarai etxean, Elgeta ondoan. Aita, Antonio Dornaku eortzalea zen, «Malombre» deitzen zioten. Ama berriz Dionisia Olaetxe, oso gazterik il zen. Erroman aurtxoa amaika senidetatik gaztena zelako, ezitzera umezurtzen etxera eraman zuten. Amalau urtekin Lekarotz'era kaputxino joan zitzaizen. Ogeita iru urtekin apaiztu zuten Elpardo deritzaien irian.

Nortasun aundiko gizona zen, azkarra ta langille amorratua. Gizon bezala bi maitasun zituen: Bera jaioterria ta euskara. Patxi Bera'ko lurra zeramakin urrutiko mixioetara. Naiz erbestean bizi, oyerako otoitzak euskaraz egiten zituen egunero.

Urrutiko mixioetan berrogeita bi urte ibilli zen, Euskalarran eta inguruan amasei. Euskalarran egindako lanak aipatuko ditut.

Gogor zigortu zuten. Filipinas'tik Nafarroa 1908'garren urtean etorri zen eta lenik toki batetik bestera dantzan ibilli zuten, itzaldi gogorak egiten zitulako: Iruña, Zangoza, Lekarotz, Tuter. Bigarren, 1911'garren urtean Euskalerritik alde bidali zuten, Hajar errira (Teruel), itzaldiak eta aitortzak egiten debekatu zioten. Irugarren, 1915'garren urtean Guam delako ugartera (Japon ingurura) eraman zuten. Aldaketaren arrazoiak eta aldatutako izenak ematen dituzte kaputxinoen nagusiak Madrid'go



Jaurilaritzari 1922'garren urtean egindako eskutitz batean: «Aita Erroman, -bizkaitarren alde agirian lana egiten zulako». Gai oneri buruz eskutitz pilla arkitu dute, España'ko Ordezkaritzan Erroma'n eta Aita Mauro Elizondo'k argitaratu ditu (Scriptorium Victoriense 36/1989). Laugarren, Guam'go mixioetan zegoela debekatzen diote euskaraz idaztea, Bibliaren itzulpenak ezik. Ori ala dio Aita Erroman'ek eskutitz batzuetan (IKus Bordari'n lana; Olerti 1961).

Euskaltzale sutsua genuen Aita Erroman. Euskara jo ta ke zabaldu naiean dabil. Eten gabe euskaraz idazten du. Gure izkuntza -mordorik gabe- naiko luke ikusi, garbirik eta egokia. Amets bat dauka,

euskal asterokoa sortzea; errikoa, elizkoa, kaputxinoen kutsuzkoa, politikarik gabekoa. Filipinas'tik etorrita asmo ori dauka buruan sarturik. Ibero'tar Aita Ebanjelista'ren adiskidea dugu.

Anitz idatzi zula ezin ukatu. Emaizta aundia utzi zuen. Mixioetatik etorrita (1908), dantzan zebilketela, liburu mardulak idatzi zituen: Euzkel-Iztegixua (Iruña 1909, bortz aldiz argitaratua), Euzkel-Iztiya (Bilbao 1909, bi aldiz argitaratua). Aldizkarietan berriz, zer esanik ez. Bere bizitza osoan irurogeita bortz idazlan egiten ditu aldizkarietan aunitzetan: Euskal-Esnalea (41), Euzkadi (11), JEL (4), Zeruko Argia (4), Irugarren Prantziskotarra (3), Euzko Gogoa (2). Gaiak berriz danetatik; olerki asko, baita itz lauzko lanak. Ba ditu iru olerki sarituak eta ipui bat.

1950'garren urtean itzuli zen betiko Euskalerrira, naiko zar zelarik. 1959'garren urtean il zen Ondarrabi'n. Oso gaxo zegoen eta oso gutxi idatzi zuen urte txar oyetan, Idanera lau idazlan.

Bere erriak zork bat dauka Aita Erroman'ekin. Edergallu bat eraiki bear liokete enparantza batean eta arrian izki aundiekin jarri berak euskaldun guztientzat idatzi zuna: «Euzkeraz, Euzkadi zuena da; erderaz, Euzkadi arrotzena da, zuek baño ederkiago dakitelako».

Latxaga